



# LAUDIO IKASTOLAKO MIKROIPUIN LEHIAKETA

## SARI NAGUSIA

*Gogoratu ahal nuen gauza bakarra gu ginen, euria egingo zuela desiratzen. Espero nuen agian horrela, biok ikasi ahalko genukeela zertxobait erortzeari buruz, zeruak hodeietan idazten duen bezala.*

*Noraezean.*

## AIPAMENAK

### ***Bata eta Bestea***

*Bi gaztek apustua egin zuten: herriko punta bate-tik bestera lehena nor iritsi. Irabazlearentzat, 2€. Bata lerro zuzenean joan zen. Besteak, aldiz, sigi-saga eginez irabaziko zuela esan omen zuen. Batek galdu egin zuen. Bestea sekulan ez zelako helmugara heldu.*

*Txema Foro*

### ***Musika***

*Nire bizitza abesti bat da. Ska batekin jaio nintzen eta bals batekin hilko naiz.*

*Identitate ukatua*